**OSASUN SAILA**

ESLEIPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, inprimagailuentzako tonerra eta Dat zintak eskuratzeko espedienteari dagokiona. 17145

ESLEIPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, Basurtuko Ospitalea tresneria kirurgikoz hornitzeko espedienteari dagokiona. 17146

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, Gurutzetako Ospitalea ekokardiografo batez hornitzeko kontratuarena. 17148

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuarena, Etxebarriko Osasun-Zentroa altzari orokorrez, altzari klinikoz eta osasun-tresneriaz hornitzeko kontratazioarena. 17149

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud, del expediente relativo a la Adquisición de cintas Dat y toner para impresoras. 17145

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud, del expediente relativo al suministro de instrumental quirúrgico para el Hospital de Basurto. 17146

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la contratación del suministro de ecocardiógrafo para el Hospital de Cruces. 17148

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud para la contratación del suministro de mobiliario general, clínico y aparataje sanitario para el Centro de Salud de Etxebarri. 17149

## Beste Iragarki Ofizial Batzuk

**TOLOSAKO UDALA**

IRAGARKIA, Tolosako Erdigune Historikoa birgaitzeko Plan Bereziaren 1 zenbakidun jarduketa isolatuak ukitzen dituen ondasun eta eskubideak okupatu aurreko aktak jasotzeko deialdia. 17151

## Otros Anuncios Oficiales

**AYUNTAMIENTO DE TOLOSA**

ANUNCIO de convocatoria al levantamiento de las Actas Previas a la ocupación de los bienes y derechos afectados por la actuación aislada nº 1 del Plan Especial de Rehabilitación del Casco Histórico de Tolosa. 17151

# Xedapen Orokorrak

## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-4936

183/2003 DEKRETUA, 2003ko uztailaren 22koa, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duena.

Azken urteetan agerian jarri da ingurumenaren gaineko ebaluazioa ingurumen-baliabideak babestu eta ingurumena defendatzeko tresna bereziki egokia dela, ingurumenean eragin handia duten jarduera eta proiektuei buruzko erabakiak hartzeko orduan ingurumenaren aldagaia kontuan hartzea ahalbidetu baitu. Halere, aipatutako prozedura orain arte ez da aplikatu plan eta programetan eta, izan ere, horiek dira, hain zuzen, proiektu handien, obra publikoen eta azpiegituren ko-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-4936

DECRETO 183/2003, de 22 de julio, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental.

La evaluación de impacto ambiental se ha revelado en los últimos años como un instrumento especialmente adecuado para la preservación de los recursos ambientales y la defensa del medio ambiente, ya que ha hecho posible introducir la variable ambiental en la toma de decisiones sobre actividades y proyectos con incidencia importante en el medio ambiente. Sin embargo, el citado procedimiento no ha resultado hasta ahora de aplicación a los planes y programas, que precisamente son

kapena eta burutzapena erabakitzean irizpide estrategikoak hartzeko erabiltzen diren tresnak.

Europako Batasunak plan eta programek ingurumenean izan dezaketen eragina ebaluatzearen garrantzia aitortu du, eta Batasuneko kide diren estatuek indarrean dituzten ingurumena ebaluatzeko sistema desberdinak nahikoak ez direla pentsatzen du, proiektuak baimentzeko ondorengo erabakien esparrua ezartzen duten funtsezko plan eta programak barne hartzen ez dituztelako. Horri dagokionez, aipatzekoa da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/42/CE Arteztaraua, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzkoa. Arteztarau honek ingurumenean eragin garrantzitsua izan dezaketen plan eta programen ingurumen-ebaluazioa egiteko sistema bat ezarri du; honen bitartez plan eta programa horiek izan dezaketen eragina prestatzen ari direnean eta legezko prozedura bidez abiarazi edo izapidetu aurretik ebaluatzen da.

Aldarrikatu zen unean, 3/1998 Legea, Euskal Herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorra, aipatutako Europako aurreikuspenekin ezin hobeki ahaidetzeaz gain, aurreratu ere egin zitzaiela esan daiteke, I A) Eranskinean zerrendatutako planen ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-sistema bat ezarri baitzuen. 3/1998 Legeak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa helburu jakin batekin sortu zuen: plangintza-prozesuaren lehen faseetan, planek ingurumenean izan dezaketen eraginaren analisia sartzea, jarduera batzuen metatze- eta sinergia-ondorioak kontuan hartuz, eta alternatiba egokienak aukeratzeko. Bestalde, Garapen Jasangarriaren EAEko Ingurumen Estrategia (2002-2020) Administraziotik sustatutako plan eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa bultzatzeko premiagatik abiarazi da, ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan sartu eta horrela garapen jasangarri baterantz aurrera egiten laguntzeko xedez.

Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorrak espreski xedatutakoa betez, alegia Lege horren 43 a), 46, 50 eta bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura modu eraginkorrean aplikatzeko beharrezkoak diren prozedurazko alderdien araudia garatuz, Lege horretan zehaztutako planei egin beharreko ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen Dekretu hau landu da.

Xedapen honen aplikazio-eremua Euskal Herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorraren I A) Eranskinean zerrendatutako plan eta programak dira. Planen eta programen aldaketei dagokienez eta aipatutako I A) Eranskin horretan ezarritakoa betez, lurzoru urbanizae-

los instrumentos a través de los que se adoptan los criterios estratégicos para decidir el emplazamiento y la ejecución de los grandes proyectos, de las obras públicas y de las infraestructuras.

La Unión Europea ha reconocido la importancia de evaluar los posibles efectos de los planes y programas en el medio ambiente, considerando que los diferentes sistemas de evaluación ambiental vigentes en los Estados miembros resultan insuficientes porque no incluyen los planes y programas fundamentales que establecen el marco de las posteriores decisiones de autorización de proyectos. A este respecto, cabe citar la Directiva 2001/42/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, relativa a la evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, que establece un sistema de evaluación ambiental de los planes y programas que pueden tener efectos significativos sobre el medio ambiente, durante su preparación y previamente a su adopción o tramitación por el procedimiento legislativo.

En el momento de su promulgación, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, no sólo entroncó a la perfección con las citadas previsiones europeas, sino que se adelantó incluso a las mismas, al establecer un sistema de evaluación conjunta de impacto ambiental de los planes relacionados en el Anexo I A). La Ley 3/1998, de 27 de febrero concibió la evaluación conjunta de impacto ambiental con el objetivo de introducir, en las primeras fases del proceso de planificación, el análisis relativo a las posibles repercusiones de los planes sobre el medio ambiente, teniendo en cuenta los efectos acumulativos y sinérgicos derivados de diversas actividades, y en orden a la elección de las alternativas más adecuadas. Por otra parte, desde la recientemente aprobada Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible (2002-2020) se ha incidido en la necesidad de impulsar la evaluación de impacto ambiental de planes y programas promovidos desde la Administración, con el objetivo de integrar la variable ambiental en otras políticas y contribuir así a avanzar hacia un desarrollo sostenible.

Atendiendo al expreso mandato contenido en la citada Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, que demanda el desarrollo reglamentario de los aspectos procedimentales precisos para la efectiva aplicación del procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental previsto en los artículos 43 a), 46, 50 y disposición transitoria quinta de la misma, se ha elaborado el presente Decreto, por el que se regula el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental al que deben someterse los planes determinados en dicha Ley.

Constituyen el ámbito de aplicación de la presente disposición los planes y programas relacionados en el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco. Por lo que respecta a las modificaciones de los planes y

zinari dagozkion urbanizazio-planen aldaketa guztiei ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egin behar zaie. Bestalde, Lege horren 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, jada onartutako planen aldaketei ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura egin beharko zaio, aldaketa horren ondorioz ingurumenak eragin kaltegarri nabarmena jasango badu bakarrik. Artikulu horrek administrazioa ahalmentzen du kasuz kasu aztertu edo eragin kaltegarri nabarmen horiek noiz gertatzen diren zehazteko irizpideak aldez aurretik ezartzeko, betiere 97/11/CE Arteztarauaren III. Eranskinean ezarritako aukeraketa-irizpideak kontuan hartuta. Dekretu honek, aipatutako bigarren aukera bere eginez, plan baten aldaketak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak zein kasutan eragin ditzakeen zehazteko irizpide objektiboak ezarri ditu. Zentzu horretan, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egin beharko zaie aplikazio-eremuak barne hartzen dituen plan eta programa guztien aldaketei, lurzoru urbanizaezinean eragina badute, ingurumenaren aldetik sentikorrak diren zonetan eragina badute edo etorkizunean ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egin beharko duten proiektuak baimentzeko esparrua finkatzen badute.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa prozedura jakin baten bidez egituratzen da eta prozedura hori, halaber, plan eta programa desberdinak landu eta onartzeko prozeduretan sartuta dago. Planteamendu honen arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa planaren tramitazioaren lehen faseetan abiarazten da eta bi prozedurek berdin dituzten uneak erabiltzen ditu aurreikusitako jarduketa desberdinei irtenbidea emateko. Horrela, plangintzarekin loturik dagoen erabakiak hartzeko prozesuan ingurumenaren aldagaia modu egokian sartzea bermatzen da, planak onartzeko prozedura oztopatu gabe.

Ingurumen-organoak ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozeduran izango duen esku-hartzea finkatzeko orduan, aintzat hartu dira planen tramitazio-prozeduraren berezitasunak. Zentzu horretan, kontuan hartu da plan bat lantzeko prozesua eta bere tramitazio-prozesua paraleloak direla eta horrek, planaren behin betiko onarpenerantz aurrera egiten den neurrian, plana bera etengabe berrazterTu edota aldatzera bultzatzen duela. Bestalde, Planen tramitazioan onarpen-une edo –ekintza desberdinak aurreikusten dira eta hauek, aldi berean, administrazioko organo desberdinek erabaki behar dituzte. Beraz, orain arte azaldutakoa kontuan harturik, ingurumen-organoaren esku-hartzea bi fasetan banatu behar da. Lehen fasean ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldez aurreko txosten bat egingo da; hau planaren aurrerapen edo lehen dokumentuari dagokio eta hasiera batean plana onartuko duen organoak kontuan hartu beharko du. Biga-

programas y conforme a lo establecido en el citado Anexo I A), todas las modificaciones de los planes urbanísticos que afecten al suelo no urbanizable están sometidas a evaluación conjunta de impacto ambiental. Por otra parte, según lo establecido en el artículo 50 de dicha Ley, la modificación de los planes ya aprobados se somete al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, únicamente en el supuesto que de dicha modificación se derivasen efectos negativos significativos sobre el medio ambiente. El citado artículo faculta a la administración para contemplar un estudio caso por caso o el establecimiento previo de umbrales o criterios que determinen cuando se producen dichos efectos negativos significativos, debiendo tener en cuenta los criterios de selección establecidos en el Anexo III de la Directiva 97/11/CE. El presente Decreto, haciendo suya la segunda de las opciones mencionadas, ha establecido criterios objetivos que permiten determinar los supuestos en que de la modificación de un plan puedan derivarse efectos negativos significativos sobre el medio ambiente. En este sentido, quedan sometidas a evaluación conjunta de impacto ambiental las modificaciones de todos los planes y programas incluidos en el ámbito de aplicación que supongan una afección al suelo no urbanizable, a zonas ambientalmente sensibles o que establezcan el marco para autorizar en el futuro proyectos sometidos a evaluación de impacto ambiental.

La evaluación conjunta de impacto ambiental se articula a través de un procedimiento inmerso, a su vez, en los procedimientos de elaboración y aprobación de los distintos planes y programas. Conforme a este planteamiento, la evaluación conjunta de impacto ambiental arranca en las primeras fases de la tramitación del plan y utiliza momentos comunes a ambos procedimientos para resolver las distintas actuaciones previstas. De este modo se garantiza una adecuada integración de la variable ambiental en el proceso de toma de decisiones asociado a la planificación, sin interferir en el procedimiento de aprobación de los planes.

A la hora de fijar la intervención del órgano ambiental en el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental se han considerado las particularidades del procedimiento de tramitación de los planes. En este sentido, se ha tenido en cuenta que el proceso de elaboración de un plan discurre en paralelo al de su tramitación, lo que determina una continua revisión y/o modificación del mismo a medida que se avanza hacia su aprobación definitiva. Por otra parte, en la tramitación de los planes se prevén distintos momentos o actos de aprobación y éstos, a su vez, han de ser resueltos por distintos órganos administrativos. Por lo tanto, y a tenor de lo expuesto, se hace preciso articular la intervención del órgano ambiental en dos fases. La primera fase coincide con la emisión de un informe preliminar de impacto ambiental, relativo al avance o primer documento del plan, y que habrá de ser tenido en cuenta por el órgano que apruebe el plan inicialmente. La se-

rren fasean ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txosten bat egingo da; hau entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren izapideak igaro ondoren landuko den planaren azken bertsioari dagokio eta plana behin betiko onartuko duen organoak hartu beharko du kontuan. Bestalde, organo honek jendaurrean adierazi beharko du planaren tramitazioan ingurumenari dagozkion alderdiak zein modutan aintzat hartu diren eta, plana onartzen duen administrazio-ebazpenean edo, hala badagokio, onarpena xedatuko duen lege-arauan, hartutako erabakia arrazoitu beharko du berau ingurumenari buruzko txostenarekin bat ez datorrenean.

Sistema honekin, halaber, Europako Batasunaren arteztarauetan gai honi buruz jasotako aurreikuspenak betetzea bermatzen da, plana nahiz ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa eta txostena agintariei eta jendeari jakinarazi beharra ezartzen baitu, horiek aipatutako dokumentuei buruz duten iritzia adierazteko aukera izan dezaten. Zentzu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programaren (2002-206) konpromisoen artean, jendaurreko agerpenak iraun artean ingurumenari buruzko informazioaren kopiak berehala emateko gailuak ahalbidetzea dago, ahal denean informazio hori informatika- edo elektronika-baliabideen bitartez hedatzea barne. Era berean, beren eskumenekoak diren planak formulatzeaz arduratzen diren agintari publikoek ingurumenari buruzko informazioa erraz kopiatu eta baliabide elektronikoen bidez eskuratzeko forma eta formatuetan egotea ahalbidetzeko neurriak hartzea sustatuko dute.

I. eranskinean plan eta programa desberdinei aplikatzekoa den ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren oinarrizko egitura eta edukiak ezarri dira. Halere, beharrezkoa izango da kasu bakoitzean I. Eranskinean jasotako alderdien helmena eta edukia modulatzea, dagokion planaren helburua eta edukia kontuan hartuta eta lurralde-plangintzaren hierarkian goragokoak diren mailetan egindako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioak aintzat hartuta.

Horri guztiari jarraiki, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailburuak proposaturik, Eusko Jaurlaritzaren Batzorde Juridico Aholkulariari adituta, eta Gobernu Batzordean eztabaidatu eta onartu ondoren, 2003ko uztaila (a)ren 22 (e)an,

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK.

*1. artikulua.–* Helburua.

Dekretu honen helburua da, Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren A) I Eranskinean zerrendatutako planei aplikatu behar zaien ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzea.

gunda fase coincide con la emisión de un informe definitivo de impacto ambiental, relativo a la última versión del plan que se elabore una vez resueltos los trámites de audiencia e información pública, y que habrá de ser tenido en cuenta por el órgano que apruebe el plan definitivamente. Por su parte, este órgano deberá trasladar al público el modo en que se han considerado los aspectos de índole ambiental durante la tramitación del plan y, en la resolución administrativa por la que se apruebe el plan o, en su caso, en la norma legal que dicte la aprobación, deberá motivar la decisión adoptada cuando la misma discrepe del contenido del informe ambiental.

Con este sistema se garantiza, asimismo, el cumplimiento de las previsiones contenidas en las directrices comunitarias en la materia, al establecer que tanto el plan como el estudio e informe de impacto ambiental se pongan a disposición de las autoridades y del público en general, al objeto de que puedan expresar su opinión sobre dichos documentos. En este sentido, entre los compromisos del Programa Marco Ambiental del País Vasco (2002-2006) figura el de facilitar dispositivos de copia inmediata de la información ambiental durante los periodos de exposición pública, incluyéndose la difusión de la misma por medios informáticos y/o electrónicos siempre que se encuentren disponibles. Asimismo, las autoridades públicas encargadas de formular los planes objeto de su competencia impulsarán la adopción de medidas tendentes a facilitar que la información ambiental esté disponible en formas o formatos fácilmente reproducibles y accesibles por medio electrónicos.

En el Anexo se ha establecido la estructura y contenidos básicos del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, de aplicación a los distintos planes y programas. Sin embargo, será necesario modular en cada caso el alcance y contenido de los aspectos recogidos en el Anexo, a la vista del objeto y contenido del plan de que se trate y a la vista de las evaluaciones de impacto ambiental realizadas en niveles jerárquicamente superiores de la planificación territorial.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno, en su sesión de 22 de julio de 2003,

## CAPÍTULO I

## DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL.

*Artículo 1.–* Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular el procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental al que deben someterse los planes relacionados en el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

*2. artikulua.–* Definizioak.

Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko, honakoei dagokien definizioa da:

1.– Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa. Plan batek ingurumenean izan dezakeen eragina baloratzeko eta, arrazoizko alternatiba guztiak kontuan hartuta, egokiena aukeratu eta plan horretako zehaztapen guztien aplikazio metatuak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio aurreikusiak aintzat hartu eta zuzentzeko helburuarekin Dekretu honetan ezarritako prozedura da; hori guztia ingurumenaren babes-maila handia eta baliabide naturalen erabilera jasangarria lortzeko xedez.

2.– Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa: Planean sartzen den eta plana osatzen duen dokumentu teknikoa. Dokumentu honetan behar bezala identifikatu, deskribatu eta ebaluatzen dira planaren aplikazioak izan ditzakeen ingurumenaren arloko ondorioak, bai eta plan horren helburuak eta aplikazio-eremua kontuan izango dituzten arrazoizko alternatibak ere.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa plan bat lantzen duten administrazio-organoek edo pertsona fisiko edo juridikoek egingo dute, planaren zehaztapen eta ekintzak behar bezain zehaztuta jasotzen dituen lehen dokumentuarekin batera. Kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeriaren arabera, lehen dokumentu horrek adiera desberdinak izan ditzake: «aurrerapen», «proiektu», «aurreproiektu», «proposamen», «hasierako dokumentu» edo bestelako antzekoak.

Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketak Dekretu honen I. Eranskinean xedatutakoari egokituko dio bere edukia.

3.– Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldez aurreko txostena: Txosten hau, ingurumenaren alorreko ondorioetarako bakarrik, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak egiten du, edo hala badagokio, lurralde historikoetako foru-organoak, Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritakoa betez, eta planaren lehen dokumentua eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa ikusirik.

Planak landu eta onartzeaz arduratzen diren organoek kontuan hartu beharko dute aipatutako aldez aurreko txostena erabakiak hartzeko prozesuan, betiere plan horien hasierako onarpena edo haiek onartzeko lehen ekintza baino lehen.

4.– Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena: Txosten hau, ingurumenaren alorreko ondorioetarako bakarrik, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak egiten du, edo hala badagokio, lurralde historikoetako foru-organoak, Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritakoa betez, eta plana behin betiko onartu baino lehen.

*Artículo 2.–* Definiciones.

A efectos de lo dispuesto en este Decreto se entenderá por:

1.– Evaluación conjunta de impacto ambiental. El procedimiento establecido en el presente Decreto para valorar los efectos que sobre el medio ambiente puede tener un plan y para que, a la vista del conjunto de alternativas razonablemente consideradas, se elija la más adecuada y se estimen y corrijan los previsibles efectos sobre el medio ambiente de la aplicación acumulada y conjunta de sus determinaciones, todo ello en aras a conseguir un elevado nivel de protección medioambiental y el uso sostenible de los recursos naturales.

2.– Estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental: Documento técnico que se integra en el plan y que forma parte de él, en el que se identifican, describen y evalúan de manera apropiada las repercusiones ambientales de la aplicación del plan, así como las distintas alternativas razonables que tengan en cuenta los objetivos y el ámbito de aplicación del mismo.

El estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental se elaborará por los órganos administrativos o personas físicas o jurídicas que formulen un plan conjuntamente con el primer documento del mismo que se redacte con suficiente grado de concreción de sus determinaciones y acciones. En función de la legislación que resulte de aplicación en cada caso, dicho primer documento podrá adoptar diferentes acepciones: «avance», «proyecto», «anteproyecto», «propuesta», «documento inicial» u otras denominaciones similares.

El estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental ajustará su contenido a lo dispuesto en el Anexo del presente Decreto.

3.– Informe preliminar de impacto ambiental: Informe que emite, a los solos efectos ambientales, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, o en su caso, el órgano foral de los territorios históricos, de acuerdo con lo establecido en el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, a la vista del primer documento del plan y del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental.

El citado informe preliminar deberá ser tenido en cuenta por los órganos responsables de la elaboración y aprobación de los planes en el proceso de toma de decisión y siempre con carácter previo a la aprobación inicial o primer acto aprobatorio de los mismos.

4.– Informe definitivo de impacto ambiental: Informe que, a los solos efectos ambientales, emite el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma, o en su caso, el órgano foral de los territorios históricos, de acuerdo con lo establecido en el artículo 44 de la Ley 3/1998, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, con anterioridad a la aprobación definitiva del plan.

Dagokien organoek kontuan hartu beharko dute aipatutako behin betiko txostena planak behin betiko onartzeko.

*3. artikulua.–* Aplikazio-eremua.

1.– Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa egingo zaie honako planei:

Lurralde Antolamenduko Arteztarauak.

Lurralde Plan Partzialak.

Lurralde Plan Sektorialak eta lurraldean eragina duten beste edozein plan eta programa.

Hiri Ordenazioko Plan Orokorrak eta lurzoru urbanizaezinean eragina duten haien aldaketak.

Planeamenduko arau subsidiarioak eta lurzoru urbanizaezinean eragina duten haien aldaketak.

Plan bereziak eta lurzoru urbanizaezinean eragina duten haien aldaketak.

2.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, «lurraldean eragina duen beste edozein plan eta programatzat» hartuko dira nekazaritzari, abeltzaintzari, basozaintzari, arrantzari, energiari, industriari, garraioari, hondakinen kudeaketari, baliabide hidrikoen kudeaketari, telekomunikazioei, turismoari edo lurzoruaren eta baliabide naturalen erabilerari buruz lantzen diren eta, gai honi buruz indarrean dagoen legeria betez, etorkizunean ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-prozeduraren bat jasan duten proiektuak baimentzeko esparrua ezartzen duten plan eta programak. Halaber, lurraldean eragina duten plan eta programatzat hartuko dira, tokiaren kudeaketarekin zerikusi zuzenik izan gabe, Natura 2000 sareko toki batean, nazioartean garrantzia duen hezegune batean eta gainerako Ingurumen Zona Ahuletan eragina izan dezaketenak. Natura 2000 Sareko tokiak diren, Europako Batasunaren 79/409/CEE arteztarauaren, basoko hegaztien kontserbazioari buruzkoaren, eta 92/43/CEE arteztarauaren, habitat naturalen eta basoko fauna eta floraren kontserbazioari buruzkoaren babesean proposatu edo izendatutakoak; nazioartean garrantzia duten hezeguneak Ramsar Hitzarmenaren Zerrendan agertzen dira; eta Ingurumen Zona Ahulak Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorrean zehaztuta daude.

3.– Halaber, artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-prozedura aplikatu beharrezkotzat hartuko dira hemen adierazitako planen lehen formulazioa nahiz haien berrazterketa.

*4. artikulua.–* Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa jasan behar duen plan-aldaketa.

1.– Aurreko artikuluan adierazitako planen aldaketari ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura aplikatuko zaio, aldaketa horrek ingurumenean ondorio kaltegarriak eragin baditzake, Euskal Herriko Ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera.

El citado informe definitivo deberá ser tenido en cuenta por los órganos competentes para la aprobación definitiva de los planes.

*Artículo 3.–* Ámbito de aplicación.

1.– Serán sometidos al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental, los siguientes planes:

Directrices de Ordenación del Territorio.

Planes Territoriales Parciales.

Planes Territoriales Sectoriales y cualesquiera otros planes y programas con incidencia territorial.

Planes Generales de Ordenación Urbana y sus modificaciones que afecten al suelo no urbanizable.

Normas subsidiarias del planeamiento y sus modificaciones que afecten al suelo no urbanizable.

Planes especiales y sus modificaciones que afecten al suelo no urbanizable.

2.– A los efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, se entenderá por «cualesquiera otros planes y programas con incidencia territorial» los planes y programas que se elaboren con respecto a la agricultura, la ganadería, la silvicultura, la pesca, la energía, la industria, el transporte, la gestión de residuos, la gestión de recursos hídricos, las telecomunicaciones, el turismo, o la utilización del suelo y de los recursos naturales y que establezcan el marco para la autorización en el futuro de proyectos sometidos a alguno de los procedimientos de evaluación de impacto ambiental, de conformidad con la legislación vigente en la materia. Asimismo, se entenderá que tienen incidencia territorial los planes y programas que, sin tener relación directa con la gestión del lugar, puedan afectar a alguno de los lugares de la Red Natura 2000, propuestos o designados al amparo de las Directivas Comunitarias 79/409/CEE, relativa a la conservación de las aves silvestres, y 92/43/CEE, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres y aquellos planes o programas que puedan afectar a alguno de los humedales de importancia internacional de la Lista del Convenio de Ramsar y al resto de las Zonas Ambientalmente Sensibles, definidas en el artículo 51 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

3.– Asimismo, a efectos de lo dispuesto en este artículo, se entenderá sometida al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental tanto la primera formulación como la revisión de los planes relacionados en el mismo.

*Artículo 4.–* Modificación de planes sometidos a evaluación conjunta de impacto ambiental.

1.– La modificación de los Planes enumerados en el artículo anterior será sometida al procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental en el supuesto de que de dicha modificación puedan derivarse efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, conforme a lo dispuesto en el artículo 50.º de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

2.– Aurreko atalaren ondorioetarako, plan baten aldaketak ingurumenean eragin kaltegarri nabarmenak izan ditzakeela ulertuko da, honako kasu hauetako bat gertatzen bada:

Hirigintza-legeriaren arabera, urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruari dagokionean.

Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ingurumen-zona ahul batean eragina duenean.

Gai honi buruz indarrean dagoen legeria betez, etorkizunean ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio-prozeduraren bat jasan duten proiektu berriak baimentzeko esparrua ezartzen duenean.

*5. artikulua.–* Eskumenak

Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko aldez aurreko txostena eta amaierako txostena Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak edo, hala badagokio, lurralde historikoetako foru-organoak egingo ditu, Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/1998 Lege Orokorraren 44. artikuluan ezarritakoa betez.

II. KAPITULUA

INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO-PROZEDURAREN XEDAPEN ARRUNTAK

*6. artikulua.–* Kontsulta.

1.– 2.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren lanketari dagokionez, Dekretu honetan aurreikusitako prozedura jasan behar duen plan bat garatzeko asmoa dutenek Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari edo Lurralde Historikoetako foru-organoari galdetu ahal izango diote ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketak jaso behar duen informazioaren hedapenari eta zehaztasun-mailari buruz, bai eta azterketa hori egiteko interesgarria iruditzen zaien beste edozein gairi buruz ere.

2.– Dagokion organoak bi hilabeteko epean erantzungo du, kontsulta jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta halaber honako alderdiei buruzko informazioa emango du:

a) Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa egiteko kontuan hartu behar diren ingurumenaren alorreko estrategia, plan eta araudiak.

b) Planaren eremuan aurkitzen diren eta ingurumenari dagokionez interes berezia duten baliabideak eta guneak eta horiek babesteko helburuak.

c) Planari buruzko kontsultak egin dakizkiekeen beste organo edo erakunde batzuen erantzunak.

d) Egokitzat hartzen dituen beste ohar batzuk.

2.– Se entenderá que la modificación de un plan puede causar efectos negativos significativos sobre el medio ambiente, a los efectos del apartado anterior, cuando se dé alguno de los siguientes supuestos:

Cuando afecte a suelo clasificado como no urbanizable con arreglo a la legislación urbanística.

Cuando afecte a alguna zona ambientalmente sensible, conforme a lo previsto en el artículo 51 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Cuando establezca el marco para la autorización en el futuro de nuevos proyectos sometidos al procedimiento de evaluación de impacto ambiental, conforme a la legislación vigente en la materia.

*Artículo 5.–* Competencias.

El informe preliminar y el informe final de impacto ambiental se emitirán por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma o, en su caso, por el órgano foral de los territorios históricos, de acuerdo a lo establecido en el artículo 44 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

CAPÍTULO II

DISPOSICIONES COMUNES DEL PROCEDIMIENTO DE EVALUACIÓN CONJUNTA DE IMPACTO AMBIENTAL

*Artículo 6.–* Consulta.

1.– A efectos de la elaboración del estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental, conforme a lo establecido en el artículo 2.2, quienes se propongan formular alguno de los planes sometidos al procedimiento previsto en el presente Decreto podrán consultar al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral de los Territorios Históricos, sobre la amplitud y el grado de especificación de la información que ha de constar en el estudio de impacto ambiental, así como cualquier otra que consideren de interés para la elaboración del citado estudio.

2.– El órgano competente responderá a la consulta realizada en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de recepción de la misma, y proporcionará asimismo información referida a los siguientes aspectos:

a) Estrategias, planes y normativa de índole ambiental que deban ser tenidos en cuenta para elaborar el estudio de impacto ambiental.

b) Recursos y espacios de especial interés ambiental que se encuentran en el ámbito del plan y objetivos de protección.

c) Respuestas de otros organismos o instituciones que pudieran ser consultadas con relación al plan.

d) Otras observaciones que considere oportunas.

7. ***artikulua.***– Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketaren tramitazioa.

1.– Plan bat lantzen duten administrazio-organoek edo pertsona fisiko nahiz juridikoek ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa bat erantsi beharko diote, eta honen edukia I. Eranskinean xedatutakoari egokituko zaio.

2.– Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketak, plana osatzen duten gainerako dokumentuekin batera, indarrean dagoen legeriak dagokion planaren tramitaziorako ezartzen dituen jendaurreko informazio, entzunaldi eta txostenen izapideak gainditu beharko ditu lehen faseetatik.

3.– Planaren tramitazio-prozeduran bere jendaurreko informazioa aurreikusita ez badago, tramitazio horretaz arduratzen den organoak gutxienez 30 eguneko epean jendaurrean jarriko du plana, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketarekin batera.

4.– 2. atalean aipatutako izapideen ondorioz planaren dokumentuetan aldaketarik badago, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa aldaketa horren edukiari egokitu beharko zaio.

III. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRAL DE-ANTOLAMENDUKO TRESNEN ETA LURRALDEAN ERAGINA DUTEN BESTELAKO PLAN ETA PROGRAMEN INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIO-PROZEDURA

8. ***artikulua.***– Ingurumenaren gaineko eraginaren aldez aurreko txosten-eskaera.

1.– Dekretu honen II. Kapituluan ezarritakoa bete beharrari kalterik eragin gabe, plana lantzeaz arduratzen den organoak ingurumenaren gaineko eraginaren aldez aurreko txostena eskatuko dio Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari edo Lurralde Historikoetako foru-organoari, eta eskaerarekin batera planaren aurrerapena edo lehen dokumentua eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-azterketa igorriko dizkio.

3.– Plan edo programaren eragina jasango duen eremuko ingurumenaren analisi, diagnostiko eta balorazioa.

Atal honetan funtsezkoak diren elkarreragin ekologikoak eta ingurumenari dagozkionak deskribatzen saiatu behar da. Halaber, kontuan hartuko dira kontserbazioaren eta garapen jasangarriaren alorretan lurraldeak dituen lehentasunak. Honako kontuetan sakonduko da:

3.1.– Azterketa-eremua definitu eta definizio horretan jarraitu diren irizpideak adieraztea.

3.2.– Baliabide naturalen ustiapena eta lurzoruaren egungo erabilerak deskribatzea.

3.3.– Plan edo programaren arrazoizko alternatiba desberdinak burutzean eragina jasan dezaketen ingurumen-aldagaiak identifikatzea, esate baterako, biodibertsitatea, flora, fauna, gea, lurra, ura, airea, klima-alderdiak, arrisku natural eta teknologikoak, kultura-ondarea, osasun publikoa, paisaia, etab., bai eta alderdi horien guztien arteko elkarreragina identifikatzea ere. Giza biztanleei buruzko informazioa bereizita aurkeztu-

1.9.– Grado de participación pública y procedimientos empleados para facilitar dicha participación en las primeras fases de elaboración del plan o programa.

2.– Análisis de las interacciones con otros planes o programas.

En esta fase se perseguirá, entre otros objetivos, identificar la relación jerárquica y transversal con otros planes o programas que pueden incidir en la generación de sinergias y efectos acumulativos ambientales adversos.

2.1.– Identificación de directrices y criterios que provienen de planes o programas jerárquicamente superiores que, condicionando el contenido del plan o programa y, en consecuencia, la generación de alternativas, han podido o no ser evaluados.

2.2.– Identificación de las metas y compromisos (Programa Marco Ambiental, etc.), disposiciones administrativas y legislación de índole ambiental, de conservación de los recursos naturales o de fomento del desarrollo sostenible, etc., establecidas en los ámbitos internacional, comunitario, estatal o autonómico. Análisis de cómo tales estrategias y objetivos se han tenido en cuenta durante la elaboración del plan o programa.

2.3.– Identificación de otros planes con incidencia en el ámbito de estudio (de ordenación integral del territorio, planes sectoriales, planes medioambientales, de protección y conservación del medio natural, planes de protección civil, etc.). Se tendrán especialmente en cuenta los planes de ordenación y gestión de espacios naturales protegidos, los planes de gestión de zonas incluidas o propuestas para la Red Natura 2000 y los planes de gestión de especies de fauna y flora de interés comunitario o autonómico, las Agendas 21 Locales, etc.

3.– Análisis, diagnóstico y valoración ambiental del ámbito afectado por el plan o programa.

En este apartado se tratará de describir las interacciones ecológicas y ambientales claves. Asimismo, se tendrán en cuenta las prioridades de conservación y desarrollo sostenible del territorio. Se profundizará en las siguientes cuestiones:

3.1.– Definición del ámbito de estudio, con expresión de los criterios que han guiado dicha definición.

3.2.– Descripción del aprovechamiento de los recursos naturales y de los usos actuales del suelo.

3.3.– Identificación de las variables de la componente ambiental que puedan verse afectadas por la ejecución de las distintas alternativas razonables del plan o programa, tales como la biodiversidad, flora, fauna, gea, suelo, agua, aire, factores climáticos, riesgos naturales y tecnológicos, patrimonio cultural, salud pública, el paisaje, etc., así como la interrelación entre todos esos factores. La información referente a la población huma-

ko da emakumeei dagokienean eta gizonezkoei dagokienean.

3.4.– Ingurunean baliagarriak diren ingurumen-baliabideak identifikatzea. Kontserbazioaren, ahultasunaren, berezitasunaren edo babes bereziaren ikuspegitik garrantzitsuak diren areak zehaztea. Bereziki kontuan hartuko dira Europako Batasunean nahiz Euskal Autonomia Erkidegoan interes berezia duten flora eta faunaren lehentasunezko habitatak edo banaketa-areak, hezeguneak eta, oro har, ingurumenari dagokionez ahulak diren zonak.

3.5.– Legezko edota kalitatezko irizpideen, dibertsitatearen, heldutasunaren, bitxitasunaren, naturaltasunaren, adierazgarritasunaren, ahultasunaren, produktibitatearen, basoko bizitzarentzat duen garrantziaren eta abarren arabera ingurunearen kalitatearen zenbait alderdi baloratzea.

3.6.– Lurraldeko paisaiaren ezaugarrien, baliabide naturalen, ondare historiko-artistikoaren eta abarren analisi integratuan oinarrituz lurralde horren ingurumen-unitate homogeneoak zehaztea. Unitate horietako ingurumenaren kalitatea baloratu eta erabilera-gaitasunak aztertzea.

3.7.– Planak xede duen eremuko ingurumenari buruzko ondorioak edo diagnostikoa. Ingurumenaren babes eta kontserbazioaren alorrean eta garapen jasangarriaren alorrean antzemandako arazo nagusiak, lortu nahi diren helburuak eta dauden lehentasunak.

3.8.– Eskatutako informazioa biltzeko orduan aurki daitezkeen zailtasunak.

4.– Teknikoki arrazoizkoak diren alternatiben ingurumenari buruzko azterketa. Hartutako erabakiaren justifikazioa.

Aurreko atalean bildutako informazioan oinarriturik, teknikoki arrazoizkoak diren alternatibek ingurumenean eragingo dituzten ondorioen analisi diferentziala egingo da.

4.1.– Plan edo programaren alternatiba desberdinetan jasotako jarduketen definizioa.

4.2.– Ezagutzen zaizkion joeren eta aurreikus daitezkeen etorkizuneko bere joeren arabera sistemak izango lukeen eboluzioa erakusteko 0 alternatiba edo «esku ez hartzeko» alternatibaren definizioa.

4.3.– Alternatiba desberdinak baloratzeko erabiliko diren ingurumen-irizpideen deskribapena.

4.4.– Alternatiba desberdinek eragindako ondorio nagusien deskribapen eta balorazio orokorra.

4.5.– Hala badagokio, alternatibei buruz galdetu zaien pertsona eta erakundeen iritzia.

4.6.– Azkenean hartutako erabakiaren justifikazioa eta gainerako alternatibak baztertzeko arrazoiak.

na se presentará de forma diferenciada para mujeres y hombres.

3.4.– Identificación de los recursos ambientales valiosos del entorno. Determinación de las áreas relevantes desde el punto de vista de la conservación, fragilidad, singularidad o especial protección. Se tendrán especialmente en cuenta los espacios que constituyen hábitats prioritarios o áreas de distribución de especies de flora y fauna de especial interés tanto a nivel comunitario como a nivel del País Vasco, las zonas húmedas y, en general, las zonas ambientalmente sensibles.

3.5.– Valoración de los diferentes aspectos de la calidad del medio en función de criterios legales y/o de calidad, diversidad, madurez, rareza, naturalidad, representatividad, fragilidad, estabilidad, estructura de la vegetación, productividad, importancia para la vida silvestre, etc.

3.6.– Definición de las unidades ambientales homogéneas del territorio a partir del análisis integrado de sus características paisajísticas, los recursos naturales, el patrimonio histórico-artístico, etc. Valoración de la calidad ambiental de estas unidades y análisis de la capacidad de uso.

3.7.– Conclusiones o diagnóstico ambiental del ámbito objeto del plan. Principales problemas detectados, objetivos y prioridades en el campo de la protección y conservación ambiental y del desarrollo sostenible.

3.8.– Dificultades que pudieran haberse encontrado a la hora de recabar la información requerida.

4.– Examen ambiental de las alternativas técnicamente razonables. Justificación de la solución adoptada.

Sobre la base de la información recabada en el apartado anterior se realizará un análisis diferencial de los efectos ambientales de las alternativas que sean técnicamente razonables.

4.1.– Definición de las actuaciones contenidas en las distintas alternativas del plan o programa.

4.2.– Definición de la alternativa 0 o «no-intervención» que muestra la evolución que seguiría el sistema según sus tendencias conocidas y las futuras previsibles.

4.3.– Descripción de los criterios ambientales que se utilizarán para valorar las distintas alternativas.

4.4.– Descripción y valoración global de los principales impactos generados por las diferentes alternativas.

4.5.– En su caso, opinión del público y entidades consultadas con relación a las alternativas.

4.6.– Justificación de la solución finalmente adoptada y motivos por los cuales las otras alternativas han sido rechazadas.

5.– Plan edo programaren jarduketa desberdinen eraginak identifikatu eta baloratzea.

Fase hau maila batean edo batzuetan egingo da, plan- edo programa-proiektuaren edukiaren arabera. Oro har, bi ebaluazio-maila zehatz daitezke.

5.1.– Plan edo programaren helburuek ingurumenean izan dezaketen eraginaren analisia.

Fase honetan plan edo programaren helburu, estrategia eta ildoak aztertuko dira, bere burutzapenak eragin kaltegarria izango duen, arazorik planteatuko duen edo 2. eta 3. ataletan finkatutako ingurumen-alorreko lehentasunak lortzen lagunduko duen aurresateko xedez.

5.2.– Planaren jarduketek (erabileren eta jardueren arautzea barne) izan ditzaketen ondorioen, alegia ingurumenean eragin dezaketenen, identifikazioa eta balorazioa, planean proposatutako jarduketa desberdinen eta eragindako inguruneko elementu espezifikoen arteko elkarreraginen azterketaren bitartez. Honakoak zehaztuko dira:

5.2.1.– Planaren edo programaren hierarkian goragokoak diren mailetan ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa pasa duten jarduketa eta ondorioen identifikazioa.

5.2.2.– Lehenago ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bat pasa ez duten plan edo programako jarduketa desberdinentzako eraginen identifikazioa eta aurreikuspena. Honako egituraren arabera taldekatu ahal izango dira:

5.2.2.1.– Eragin zuzenagatik, zeharkako eraginagatik edo ekosistema, habitat eta espezie baliagarrien asalduragatik baliabide naturalak galtzea. Halaber, kontuan hartuko dira espazioko heterogeneotasunaren gaineko eraginak dibertsitate biologikoen mantentzearen, espazioen arteko konexioaren aldaketen eta zatiketen oinarri gisa.

5.2.2.2.– Euskal Herriko Ingurumena babesteko 3/3998 Lege Orokorraren 51. artikuluan zehaztutako ingurumen ahuleko zonei eta, bereziki, natura-gune babestuei, Natura 2000 Sareko zonei, arriskuan dauden basoko flora eta faunako espezieen banaketa-zonei, hezegune garrantzitsuei eta abarrei ondorioak eragitea, betiere zona horietarako ezartzen diren babes-helburuak kontuan hartuta.

5.2.2.3.– Estetika eta kulturari edo paisaiari dagozkien baliabideei ondorioak eragitea, beren osagai natural eta erabileren integrazioaren, osaera estetikoaren eta horietatik ondorioztatutako giro emozionalaren ikuspegitik baliagarriak diren paisaiak daudela kontuan hartuta.

5.2.2.4.– Baliabide berriztagarriei eta berriztaezinei kontsumo-proposamenetatik edo beren kalitatea aldatzen duten jardueretatik eratorritako ondorioak eragitea.

5.– Identificación y valoración de los impactos de las diferentes actuaciones del plan o programa.

Esta fase se realizará a uno o varios niveles, en función del contenido del proyecto de plan o programa. Con carácter general se pueden definir dos niveles de evaluación.

5.1.– Análisis de los posibles efectos ambientales de los objetivos del plan o programa.

En esta fase se analizarán los objetivos, estrategias y directrices del plan o programa, con el objeto de predecir si su consecución interferirá negativamente, no planteará problemas o coadyuvará a alcanzar las prioridades ambientales fijadas en los apartados 2 y 3.

5.2.– Identificación y valoración de los posibles efectos de las actuaciones del plan (incluida la regulación de usos y actividades), que pueden ser fuente de impactos ambientales, mediante el estudio de las interacciones entre las distintas actuaciones propuestas en el plan y los elementos específicos del medio afectado. En concreto se detallarán:

5.2.1.– Identificación de actuaciones y efectos que han sido objeto de la evaluación conjunta de impacto ambiental en niveles jerárquicos superiores del plan o programa.

5.2.2.– Identificación y predicción de los impactos para las diferentes actuaciones del plan o programa que no han sido objeto anteriormente de una evaluación de impacto ambiental. Se podrán agrupar según la estructura siguiente:

5.2.2.1.– Pérdida de recursos naturalísticos, por afección directa, indirecta o perturbación de ecosistemas, hábitats y especies valiosos. Asimismo, se considerarán los impactos sobre la heterogeneidad espacial como base del mantenimiento de la diversidad biológica, las modificaciones de la conexión entre los espacios y las fragmentaciones.

5.2.2.2.– Afección a las zonas ambientalmente sensibles definidas en el artículo 51 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, y en especial a espacios naturales protegidos, a zonas pertenecientes a la Red Natura 2000, a zonas de distribución de especies de flora y fauna silvestre amenazada, a humedales de importancia, etc., teniendo en cuenta siempre los objetivos de protección que se establezcan para dichas zonas.

5.2.2.3.– Afecciones sobre recursos estético-culturales o paisajísticos, teniendo en cuenta la existencia de paisajes valiosos desde el punto de vista de la integración de sus componentes naturales y de usos, su composición estética y atmósfera emocional que se deriva de los mismos.

5.2.2.4.– Afecciones sobre recursos renovables y no renovables, derivados de propuestas de consumo o actuaciones que supongan una alteración de su calidad.

5.2.2.5.– Hondakinak sortu eta kutsadura areagotzea.

5.2.2.6.– Giza osasunean eta lasaitasun-baldintzetan eta hiri-ingurumenaren kalitatean eragin zuzena edo zeharkakoa izatea (paisaia, ondarea, espazio libreak, irisgarritasuna, etab.). Ahal bada, biztanleengan duen eragina emakumeak eta gizonezkoak bereiziz deskribatuko da.

5.2.2.7.– Nekazaritzari eta ekologiari dagokien produktibitatea galtzea, funtsean ingurune edafikoa erabiltzeko gaitasunaren eta nekazaritza-ustiapenetan izandako eragin-mailaren arabera.

5.2.2.8.– Kultura-ondarea galtzea.

5.2.2.9.– Eragin daitezkeen mugaz haraindiko ondorioak.

5.2.2.10.– Plan edo programaren proposamenak eragindako arriskuen analisia, bai eta hark berari ez dagozkion eta tarteka izan daitezkeen arriskuetan duen eragin-maila ere.

5.2.2.11.– Planaren fase honetan proposamen edo jarduketa zehatz batzuen eragina zehazteko izaten diren eragozpen eta zalantzen deskribapena.

5.2.3.– Eraginak edo beren ezaugarriak deskribatuko dira eta, horretarako, baliagarriak dira irailaren 30eko 1131/1998 Errege Dekretuaren (Proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Araudia) 1. Eranskinean zehaztutako ezaugarri edo kontzeptu teknikoak. Honakoen arabera sailkatuko dira: gertatzeko duten aukera, zeinua (positiboa edo negatiboa), gertatzen diren unea (planaren garapenarekin batera edo denboran bat etorri gabe), iraupena, itzulgarritasuna, berreskuragarritasuna, garrantzia eta espazioko helmena, ondorio zuzenak eta zeharkakoak. Arreta bereziaz aztertuko dira planaren jarduketa desberdinen metaketa- eta sinergia-ondorioak eta hauek beste plan batzuek proposatutako jarduketen ondorioekin dituztenak, 7.2. atalaren fasean bildutako datuak kontuan hartuta. Halaber, eraginak aurresateko unean izandako zalantza-maila adieraziko da. Gainera, eragin horiek gertatzea aurreikusten den plan edo programaren fase desberdinekin lotzeko ahalegina egingo da.

5.2.4.– Eraginen kalifikazioak honakoak izango dira: bateragarriak, neurrizkoak, gogorrak eta kritikoak, irailaren 30eko 1131/1998 Errege Dekretuan (Proiektuen Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioaren Araudia) jasotako definiziori jarraiki.

5.3.– Hala badagokio, eragin kritikoa izango dutelako aldatu edo kendu egin diren plan edo programako jarduketak zehaztuko dira.

6.– Neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen proposamena.

6.1.– Plangintzako goragoko eskaletan egindako ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluaziotik ondorioztatu diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen identifikazioa.

5.2.2.5.– Generación de residuos e incremento de la contaminación.

5.2.2.6.– Incidencia directa o indirecta sobre la salud humana y las condiciones de sosiego y sobre la calidad del medio ambiente urbano (paisaje, patrimonio, espacios libres, accesibilidad, etc.). Siempre que sea posible, se describirá la incidencia sobre la población diferenciando mujeres y hombres.

5.2.2.7.– Pérdida de la productividad ecológica y agraria, dependiendo fundamentalmente de la capacidad de uso del medio edáfico y del grado de afección a las explotaciones agrarias.

5.2.2.8.– Pérdida del patrimonio cultural.

5.2.2.9.– Posibles efectos transfronterizos.

5.2.2.10.– Análisis de los riesgos derivados de las propuestas del plan o programa, así como el grado de incidencia del mismo sobre la probabilidad de ocurrencia de riesgos episódicos y latentes externos a él.

5.2.2.11.– Descripción de las dificultades e incertidumbres para determinar el impacto ambiental de determinadas propuestas o actuaciones en la fase actual del plan.

5.2.3.– Se describirán o caracterizarán los impactos, para lo cual son válidos los atributos o conceptos técnicos definidos en el Anexo 1 del Real Decreto 1131/1998, de 30 de septiembre (Reglamento de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos). Se clasificarán según su probabilidad de ocurrencia, signo (positivo o negativo), según el momento en que tiene lugar (simultáneamente al desarrollo del plan o diferidos en el tiempo), duración, reversibilidad, recuperabilidad, magnitud y alcance espacial, efectos directos o indirectos. Se analizarán con especial detalle los efectos acumulativos y sinérgicos de las distintas actuaciones del plan y las de éstas con otras actuaciones propuestas por otros planes, teniendo en cuenta los datos recabados en la fase del apartado 7.2. Se indicará, asimismo, el grado de incertidumbre en la predicción de los impactos. Se intentará, asimismo, vincular estos impactos a las distintas fases del plan o programa en las que es previsible que se produzcan.

5.2.4.– Se calificarán los impactos como compatibles, moderados, severos y críticos, de acuerdo con la definición contenida en el Real Decreto 1131/1998, de 30 de septiembre (Reglamento de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos).

5.3.– Se detallarán, en su caso, las actuaciones del plan o programa que se hayan modificado o suprimido por suponer un impacto crítico.

6.– Propuesta de medidas protectoras, correctoras y compensatorias.

6.1.– Identificación de las medidas protectoras, correctoras y compensatorias provenientes de la evaluación de impacto ambiental a escalas superiores de la planificación.

6.2.– Plan edo programaren helburu eta estrategien egokitzapen-proposamena, hala badagokio, ingurumenari dagozkion alderdiak sartuz.

6.3.– Eragin negatiboa duten proposamenen ingurumen-kostua saihestu edo murrizteko neurrien eta ingurumen-ondorio positiboak dituzten bestelako proposamenen onurak areagotzeko neurrien definizioa. Hauek bi eratakoak izan daitezke:

6.3.1.– Eragin garrantzitsuenei dagozkien neurri zuzentzaileak; hauen helburua izango da gertatzeko aukerak murriztea eta elementu baliagarri edo ahulak eta gizakiak eragin garrantzitsu edo handien menpe egotea saihestea.

6.3.2.– Lurraren kokapen, sailkapen eta kalifikazioari, hiri-lurrari eta urbanizagarriari buruzko zehaztapenei, erabilera orokor eta zehaztuei, industrialdeetako zehaztapen espezifikoei, jarduketa-kopuruari, beren dimentsio edota ahalmenari, erabilitako teknologiei eta abarri dagozkien neurri babesle eta zuzentzaileak.

6.3.3.– Planaren proposamenek zuzenean mehatxatzen dituzten baliabide natural estrategikoak (habitatak, espezieak, paisaia, baliabide hidrikoak, ur-masak, hezeguneak, ondare geologikoa, etab.).

6.3.4.– Hiri-paisaia, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, hiri-hazkuntza berriak paisaian integratzeko, landa-lurraren eta nekazaritza-egituraren erabilera tradizionalari eusteko, azpiegiturak eta eraikuntzak landa-inguruneari eta paisaiari egokitzeko eta abarrerako neurriak.

6.3.5.– Aurreikusitako ingurumenaren gaineko eragina arindu nahi dituzten baliabide berriak sortzera bideratutako neurri konpentsatzaileak.

6.3.6.– Hala badagokio, proposatutako neurriak aplikatzearen ondoriozko kostu ekonomikoaren kalkulua eta horiek burutzeko denboraren planifikazioa.

6.3.7.– Helburutzat ebaluazio-xede den plan edo programaren proposamenak kokatu edo zehaztea duten beheragoko mailako plan edo programak diseinatzeko irizpide eta norabide orokorrak (etorkizuneko jarduketen kokapen onargarriak, arazoak sortuko dituztenak edo onartezinak adieraztea).

6.3.8.– Ondorengo ingurumenaren gaineko eraginaren baterako edo bakarka egindako ebaluazioetan sartzeko irizpideak.

6.3.9.– Aurrerago aipatutako neurri guztiak zein mailatan betetzen diren eta zein eraginkortasun-maila duten jarraitzeko adierazle guztien deskribapena.

7.– Plan edo programaren ondorioak ikuskatzeko programa.

Honen helburua da plan edo programaren aplikazioa zuzena den eta eragina gutxitu eta zuzentzeko neurriak kontuan hartzen diren egiaztatzea. Halaber, plan edo

6.2.– Propuesta de adecuación de los objetivos y estrategias del plan o programa, introduciendo, en su caso, objetivos de índole ambiental.

6.3.– Definición de medidas para evitar o reducir el coste ambiental de las propuestas con incidencia negativa y para maximizar los beneficios de aquellas otras con efectos ambientales positivos. Estas pueden ser de varios tipos:

6.3.1.– Medidas correctoras referentes a los impactos más significativos cuyo objeto será reducir su probabilidad de ocurrencia, así como para evitar la exposición de elementos valiosos o vulnerables y de la población humana a impactos significativos.

6.3.2.– Medidas protectoras y correctoras referentes a la localización, a la clasificación y calificación del suelo, a determinaciones sobre el suelo urbano y apto para urbanizar, a los usos globales y pormenorizados, a determinaciones específicas en zonas industriales, al número de actuaciones, a su dimensión y/o capacidad, a las tecnologías utilizadas, etc.

6.3.3.– Medidas protectoras que se dirijan a conservar recursos naturales estratégicos amenazados directamente por las propuestas del plan (hábitats, especies, paisaje, recursos hídricos, masas de agua, zonas húmedas, patrimonio geológico, etc).

6.3.4.– Medidas para mejorar el paisaje urbano, la movilidad y accesibilidad, para integrar los nuevos crecimientos urbanos en el paisaje, para el mantenimiento de los usos tradicionales del suelo rústico y la estructura agraria, para la adaptación de las infraestructuras y construcciones al ambiente rural y al paisaje, etc.

6.3.5.– Medidas compensatorias orientadas a generar nuevos recursos que pretendan paliar la afección ambiental prevista.

6.3.6.– Estimación, en su caso, del coste económico de la aplicación de las medidas propuestas y planificación temporal para la ejecución de las mismas.

6.3.7.– Criterios y directrices generales para el diseño de planes o programas de rango inferior cuyo objeto sea localizar o concretar propuestas del plan o programa objeto de evaluación (indicación de zonas donde futuras localizaciones de actuaciones son aceptables, problemáticas o inaceptables).

6.3.8.– Criterios para introducir en las evaluaciones conjuntas o individualizadas de impacto ambiental subsiguientes.

6.3.9.– Descripción del conjunto de indicadores para realizar el seguimiento del grado de cumplimiento y efectividad de todas las medidas citadas anteriormente.

7.– Programa de supervisión de los efectos del plan o programa.

Su objeto será verificar la correcta aplicación del plan o programa y si se tienen en cuenta las medidas de mitigación y corrección de impacto. Asimismo, se trata-

programa abiarazteak, aurreikusi eta neurtutakoez gain, beste ondorio garrantzitsu batzuk eragin ez dituela egiaztatzen saiatu behar da. Programak honakoak barne hartu behar ditu:

7.1.– Kontrolaren helburuak zehaztea.

7.2.– Jarraipena behar duten ingurumeneko sistema, alderdi edo aldagaiak identifikatzea.

7.3.– Adierazleen jarraipena egiteko beharrezkoak diren datu kuantitatibo eta kualitatiboak finkatzea.

7.4.– Kuantifika daitezkeen parametroentzako mugako edo erreferentziazko mailak ezartzea.

7.5.– Planaren fase desberdinak burutzean, aurreko fasean aurreikusitako neurriak zein mailatan betetzen diren ikuskatu, zaindu eta jakinarazteko programak diseinatzea.

7.6.– Plangintza-prozesuaren ondorengo faseetara edo garapen-dokumentuen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioetara atzeratu behar diren analisi zehaztuak zein alderdiri dagozkien adieraztea.

8.– Laburpen-dokumentua

Aurreko epigrafeen arabera ahalbidetutako informazioaren laburpen teknikoa izango da eta oro har biztanle guztiek ulertzeko moduan prestatuko da. Argi eta garbi azalduko dira aztertu diren aukera edo alternatiba desberdinak, haien ingurumen-ebaluazio konparatua, planaren zehaztapenen ebaluazio zehatzaren emaitza, proposatu diren neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile nagusiak eta garapen-planetan eta jarraian izango diren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioetan sartu behar diren neurriak.

9.– Dokumentazio grafikoa.

Ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketak dokumentazio grafikoa barne hartuko du eta honek jasotako informazioa ulertu eta espazioan kokatzeko moduan azalduko da. Era berean, kartografia plan edo programa beraren lan-eskalari egokituko zaio. Zehazki honako dokumentu grafikoak barne hartuko ditu:

9.1.– Proposamenak espazioan kokatu daitezkeen kasuetan, plan edo programaren alternatiba desberdinen irudikapen kartografikoa.

9.2.– Plan edo programaren egitura-zehaztapenak eta, bereziki, ondorioak eragin ditzaketen eta lurraldean kokatu daitezkeen jarduketei dagozkienak.

9.3.– Lurraldeko ingurumenaren analisia gai-geruza desberdinetan eta eragina jasandako lurraldean dauden ingurumen-unitate homogeneo nagusien kartografia sintetikoa.

9.4.– Ingurumenaren aldetik interes berezia duen lurraldeko eremu eta baliabideak jasoko dituen kartografia.

rá de comprobar que la puesta en marcha del plan o programa no da lugar a impactos ambientales significativos distintos a los previstos y asumidos. El programa deberá contener:

7.1.– Definición de los objetivos del control.

7.2.– Identificación de sistemas, aspectos o variables ambientales afectados que deben ser objeto de seguimiento.

7.3.– Fijación de los datos cuantitativos y cualitativos necesarios para el seguimiento de los indicadores.

7.4.– Establecimiento de niveles límite o de referencia para los parámetros cuantificables.

7.5.– Diseño de los programas de supervisión, vigilancia e información del grado de cumplimiento de las medidas previstas en la fase anterior, a lo largo de la ejecución de las distintas fases del plan.

7.6.– Indicación de los aspectos cuyo análisis detallado debe posponerse a fases posteriores del proceso de planificación o a las evaluaciones de impacto ambiental de los documentos de desarrollo.

8.– Documento de síntesis.

Consistirá en un resumen de carácter no técnico de la información facilitada en virtud de los epígrafes precedentes, comprensible para el conjunto de la población. Se expondrán claramente las distintas opciones o alternativas examinadas, su evaluación ambiental comparativa, el resultado de la evaluación detallada de las determinaciones del plan, las principales medidas protectoras, correctoras y compensatorias propuestas y las medidas a introducir en los planes de desarrollo y en las sucesivas evaluaciones de impacto ambiental.

9.– Documentación gráfica.

El estudio de impacto ambiental contendrá documentación gráfica con un grado de detalle suficiente para poder comprender y localizar espacialmente la información contenida. Asimismo, la cartografía estará ajustada a la escala de trabajo del propio plan o programa. En concreto contendrá los siguientes documentos gráficos.

9.1.– Plasmación cartográfica de las distintas alternativas del plan o programa, en los casos en que las propuestas puedan ser localizadas espacialmente.

9.2.– Determinaciones estructurales del plan o programa y, en especial, de aquellas actuaciones que pueden dar lugar a impactos y que puedan ser localizadas en el territorio.

9.3.– Análisis ambiental del territorio en diferentes capas temáticas y cartografía sintética de las principales unidades ambientales homogéneas existentes en el territorio afectado.

9.4.– Cartografía conteniendo los ámbitos y recursos del territorio de especial interés ambiental.

9.5.– Antzemandako eragin nagusien kokapena espazioan.

9.6.– Lurraldean kokatu daitezkeen neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileak islatzen dituen kartografia.

9.7.– Ikuskatuko diren eremu edo baliabideak islatzen dituen kartografia.

# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### Zk-4937

EBAZPENA, 2003ko uztailaren 29koa, Turismo sailburuordearena; honen bidez, 2003ko ekainaren 4ko Aginduan ezarritakoari jarraituz, 2003ko ekitaldirako laguntzak emateko jendaurrean deialdia egiteko ebazpenaren bigarren aldaketa egiten da; izan ere, aipatutako agindu horrek garatzen du turismo-arloan inbertsioak egiteko finantza-laguntzak emateko AFI Programa.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2003ko ekainaren 4ko Aginduak turismo-arloan inbertsioak egiteko finantza-laguntzen AFI programa garatzen du.

Aipatutako Agindu horren 15. artikuluan ezarritakoari jarraituz, Turismo sailburuordeak 2003ko ekainaren 27ko Ebazpena eman zuen; ebazpen horren bidez, jendaurrean argitaratu zen AFI Programako laguntzak emateko 2003ko ekitaldirako deialdia, alegia, turismo-arloan inbertsioak egiteko finantza-laguntzak ematekoa, eta xede hori iristeko behar ziren arauak ere eman zituen.

Turismo sailburuordeak 2003ko ekainaren 27an emandako Ebazpenaren 3. artikuluan ezarritakoari jarraituz, eskabidearen eredua eta formularioak erakunde laguntzaileek adierazitako sukurtsaletan eskuratu ahal izango dira (ebazpen honen eranskinean agertzen dira), edo, bestela, Industria, Merkataritza eta Turismoko lurralde-bulegoetan ere bai. Interneteko helbide honetan ere aurkitu ahal izango dira agiriok: www.eragintza.net.

Turismo-arloan inbertsioak egiteko finantza-laguntzak emateko AFI Programa garatzearren, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak 2003ko ekainaren 4an Agindua eman zuen, eta hor ezarritako nondik norakoei jarraituz, Turismo sailburuordeak 2003ko ekainaren 27an emandako Ebazpenaren bidez 2003ko eki-

9.5.– Localización espacial de los principales impactos detectados.

9.6.– Cartografía reflejando las medidas protectoras, correctoras y compensatorias que puedan ser localizadas en el territorio.

9.7.– Cartografía reflejando los ámbitos o recursos que van a ser objeto de supervisión.

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### N°-4937

RESOLUCIÓN de 29 de julio de 2003, de la Viceconsejera de Turismo, de segunda modificación de la resolución por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden de 4 de junio de 2003, que desarrolla el programa AFI, de ayudas financieras a la inversión en el sector turístico, para el ejercicio 2003.

La Orden de 4 de junio de 2003, del Consejero de Industria, Comercio, y Turismo, desarrolla el Programa AFI, de ayudas financieras a la inversión en el sector turístico.

De conformidad a lo establecido en el artículo 15, de la citada Orden, la Viceconsejera de Turismo, dictó resolución, de 27 de junio de 2003, publicando la convocatoria de las ayudas del Programa AFI, de ayudas financieras a la inversión en el sector turístico, para el ejercicio 2003, dictando a tal objeto las normas necesarias.

De conformidad a lo establecido en el artículo 3 de la resolución de 27 de junio de 2003, de la Viceconsejera de Turismo, el modelo de solicitud, así como los formularios, serán facilitados por las sucursales que determinen las Entidades Colaboradoras, que aparecen en el Anexo a esta resolución, por las Oficinas Territoriales de Industria, Comercio y Turismo, o podrá descargarse en la dirección de Internet www.eragintza.net.

Con la intención de incluir unas nuevas Entidades Colaboradoras entre las determinadas en la resolución de 27 de junio de 2003, de la Viceconsejera de Turismo, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas, dentro del marco establecido por la Orden de 4 de junio de 2003, del Consejero de Indus-